

254. ALDIZKARIA - 2011ko abenduaren 28a

NAFARROAKO HIRI HONDAKINEN TRATAMENDURAKO PARTZUERGOA

Udalak sortutako hiri hondakinak lekuz aldatu, sailkatu, tratatu, balioztatu eta, behar izanez gero, deuseztatzeko zerbitzuaren tasa arautzen duen ordenantzako aldaketa. Behin betiko onespena

2011ko 211. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urriaren 24an, argitara eman zen Udalak sortutako hiri hondakinak lekuz aldatu, sailkatu, tratatu, balioztatu eta, behar izanez gero, deuseztatzeko zerbitzuaren tasa arautzen duen ordenantza fiskaleko aldaketa. Aldaketa hori Nafarroako Hiri Hondakin Tratatamendurako Partzuergoko Zuzendaritza Kontseiluak 2011ko urriaren 18an egin bilkuran onetsi zuen hasiera batez.

Partzuergoko Zuzendaritza Kontseiluak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen jendaurreko aldiari jasotako iradokizunak onartzea, hain zuzen ere partzuergoko tasaren 3., 4., 5. eta 7. tarifei lotutako jarduera batzuen azalpenari buruzkoak soilik. Hori horrela, behin betiko onetsi zuen, 2012tik aurrerako ondorioekin, horixe arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Aldatutako ordenantzako eranskinaren behin betiko testuarekin batera argitara ematen da, orok jakin dezan eta aplikagarri diren gainerako legezko ondorioak izan ditzan. Hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an.-Partzuergoko burua, Roberto Jiménez Alli.

TARIFEN ERANSKINA

2012ko tarifen zenbatekoak zehaztu dira, ondoko taulan ezarritako kopuru eta irizpideen arabera, zein den jarduera eta zein establezimendutan gertatzen den zerbitzuaren prestazioa. Etxeko tarifari dagokionez (T) 46,32 eurokoa izanen da.

MULTZOA / TARIFAK	JARDUERAK TOKI ZEHATZETAN	PISUA, TARIFEN ARABERA
1. MULTZOA: Etxekoa		
1. TARIFA	Etxeak.	T
2. MULTZOA: Etxeko tarifaren parekoak		
2. TARIFA	Bulegoak, langelak, lanbide jarduerak egiteko lokalak eta, oro har, zerbitzuen sektorearekin zerikusia dutenak. Egoitza eta instalazio publikoak sartzen dira hemen, betiere jantoki zerbitzurik ez badute. Merkataritzako establezimenduak, elikagaienak salbu, haien azalera osoa 150 m ² -tik beherakoa bada. Elkarte gastronomiko guztiak sartzen dira.	1,25 x T
3. TARIFA	Merkataritzako establezimenduak, elikagaienak salbu, haien azalera osoa 150 m ² -tik gorakoa bada. Ostalaritza eta aisialdiko establezimenduak, jantoki zerbitzurik gabe, haien azalera osoa 150 m ² -tik beherakoa bada. Elikagaien establezimenduak, haien azalera osoa 150 m ² -tik beherakoa bada. Azalera hori duten okindegiak eta/edo gozotegiak sartzen dira.	2 x T
4. TARIFA	Ostalaritza eta aisialdiko establezimenduak, jantoki zerbitzurik gabe, haien azalera osoa 150 m ² -koa edo hortik gorakoa bada. Ostalaritza eta aisialdiko establezimenduak, jantoki zerbitzua dutenak, haien azalera osoa 150 m ² -tik beherakoa bada.	3 x T
5. TARIFA	Industriako establezimenduak, handizkako banaketa establezimenduak eta lantegiak, jantoki zerbitzurik ez dutenak, eta elikagairik maneiatzen edo eraldatzen ez badute.	3 x T
3. MULTZOA: Bereziak		
6. TARIFA	Elikagaien merkataritzako establezimenduak, haien azalera osoa 150 m ² -tik gorakoa eta 500 m ² -koa edo txikiagoa bada. Ostalaritzako establezimenduak sartzen dira, publikoak edo pribatuak izan, jantoki zerbitzua izan eta azalera hori dutenak.	5 x T
7. TARIFA	Industriako establezimenduak, jantoki zerbitzua izan edo haien jardunean elikagaiak maneiatu edo eraldatzen badituzte.	6 x T
8. TARIFA	Elikagaien merkataritzako establezimenduak, haien azalera osoa 500 m ² -tik 1.000 m ² -ra artekoa bada. Ostalaritzako establezimenduak, publikoak edo pribatuak, jantoki zerbitzua izan eta azalera hori dutenak, baldin eta haien plaza kopurua 100dik beherakoa bada. Hemen sartzen dira kanpin guztiak, haien plaza kopurua edozein delarik ere.	7 x T
4. MULTZOA: Hondakin sortzaile handiak		
9. TARIFA	Elikagaien merkataritzako establezimenduak, haien azalera osoa 1.000 m ² -koa edo hortik gorakoa bada. Ostalaritzako establezimenduak, publikoak edo pribatuak, jantoki zerbitzua izan eta azalera hori dutenak, baldin eta haien plaza kopurua 100 edo hortik gorakoa bada.	20 x T

Iragarkiaren kodea: L1119872